

1.	Izenburua .....	1
2.	Aurrekariak .....	1
3.	Helburua eta irismena .....	2
4.	Erreferentzia-arauak .....	2
5.	Definizioak .....	2
6.	Baldintzak .....	3
6.1.	Zuzendaritzaren Konpromisoa (Ingurumenarekiko Konpromisoa, Ekoscan Kudeatzailea eta Ingurumena Hobetzeko Taldea) .....	3
6.2.	Erakundeko ingurumen-egoeraren azterketa .....	4
6.2.1.	Irismenaren definizioa Jardueren eta/edo produktuen eta zerbitzuen identifikazioa .....	4
6.2.2.	Ingurumen Alderdien, Legezko Betekizunen eta Ingurumenarekiko Jokaeraren Adierazleak identifikatzea .....	4
	Ingurumen-alderdien kuantifikazioa .....	5
6.3.	Ingurumen-alderdien lehenespena eta hobetu beharreko helburuen hautaketa .....	6
6.4.	Ingurumena Hobetzeko Planaren definizioa .....	7
6.5.	Ingurumena Hobetzeko Planaren segimendua eta emaitzak jakinaraztea .....	7
	Ingurumena Hobetzeko Planaren segimendua .....	7
	Ingurumena Hobetzeko Emaitzen jakinarazpena .....	8
6.6.	Ingurumena Hobetzeko Kudeaketa zuzendaritzak ikuskatzea .....	8
	A GEHIGARRIA EKOSCAN ARAUEN, ISO 14001:1996-AREN ETA 761/01 EMAS ARAUDIAREN ARTEKO ELKARREKIKOTASUNA .....	9
	B GEHIGARRIA. EKOSCAN Arauaren betekizunak. PDCA eskema .....	11
	C. GEHIGARRIA. GOMENDIOAK .....	11
	D GEHIGARRIA. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK .....	12

### ALDAKETEN HISTORIA

Edizioa	Data	Aldaketa
1	11/02/2004	Ekoscan Arauaren onespena

© IHOBE 2004  
Argitaratzailea: IHOBE, S.A.  
Lege-gordailua: BI-553-04

Dokumentu honi buruzko iradokizunak helbide honetara bidali:  
IHOBE, S.A.  
Ibañez de Bilbao 28, 8. solairua 48009 Bilbo  
tel. 94 423 07 43 Faxe: 94 423 59 00  
helbide elektronikoa: [ekoscan@ihobe.net](mailto:ekoscan@ihobe.net)

Ekoscan Araua<sup>®</sup> gaztelaniaz eta ingelesez ere eskura daiteke.

## Ekoscan ARAUA

### 1. Izenburua

Ekoscan Araua<sup>1</sup>.

### 2. Aurrekariak

Ingurumena babesteko gero eta ardura eta sentsibilitate handiagoa nabari da azken urteotan bai administrazio publikoetan bai gizarte osoan. Halaber, erakunde asko, gizartearen eskaera horri erantzunez, ingurumenarekiko jokaera hobetzeko ahalegin handiak egiten ari dira.

Enpresek, bestalde, Kalitatea Kudeatzeko Sistemak ezartzetik eratorritako ereduak integratu dituzte bere kudeaketa-sisteman; adibidez, ISO 9000 serieko arauak. Enpresaz kanpoko erakunderen batek onetsi behar ditu aipatu ereduak, enpresak ezarritako kudeaketa-sistemarekiko konfiantza eta sinesgarritasuna bermatzeko.

ISO 14001 ziurtagirien kopuruan izandako bilakaerak erakusten du enpresak gero eta gehiago arduratzen direla, ingurumenarekiko jokaera hobetzeaz ez ezik, ingurumenaren alde egindako ahaleginen aintzatespena besteengandik jasotzeaz ere.

Hori guztia egia izanagatik ere, egia da, baita ere, enpresa eta erakunde ugarirentzat ISO 14001 ziurtagiria epe laburrean lortzea oso helburu zaila dela, hainbat arrazoiengatik (erakundearen egitura/baliabide mugatuak, ingurumenarekiko eskakizunak lehiaketa-faktore ez diren merkatuan jardutea, uneko ingurumen-legedia betetzeko zailtasunak izatea, etab.).

Enpresa eta erakunde horietako askorentzat, ordea, interesgarria izan daiteke ingurumenarekiko jokaeraren hobekuntza erraz kudeatzeko lan-metodo bat garatzea, batez ere, emaitza onak azkar lortzera bideratuz alor hauetan: hondakin-, zabor- eta emisio-murrizketa eta baliabideen erabileraren optimizazioa (lehengaiak, ura eta energia, adibidez).

Lehendik zegoen eskaera<sup>2</sup> horri erantzuteko helburuarekin garatu da arau hau. Hona hemen ingurumenarekiko jokaera hobetzeko prozesu **bizkor eta eraginkor** honen funtsezko alderdiak:

- **emaitza hobekuntza** lortzea ingurumenarekiko jokaeran, ondoren aipatzen diren gainerako funtsezko alderdietan oinarrituta. Enpresaz edo erakunde kanpoko beste erakunde batek egiaztatzea behar ditu hobekuntzak.
- ingurumenarekiko jokaera hobetzeko prozesuan zuzendaritzak duen konpromisoa. Hobekuntzak lortzeko, **langileen parte-hartzea eta konpromisoa** ezinbestekoak ditu enpresa-zuzendaritzak.
- erakunde edo enpresaren ingurumen-egoera aztertzea. **Ekonomiaren** eta araudiaren ikuspegitik egin behar da azterketa, eta **ingurumen-adierazleak** erabili behar dira egoeraren bilakaera egiaztatzeko.
- hobekuntza-alderdiei lehentasuna ematea, jarduera-eremuak definitzeko elementu gisa.
- ezarri beharreko balizko irtenbideen bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta ingurumenekoa identifikatzea eta aurrez aztertzea. Ondorioz, Ingurumena Hobetzeko Plan bat sortuko da, eta hor esleitu behar dira eginkizunak, ardurak, epeak eta bitartekoak.
- Hobekuntza Planari esker lortutako emaitzen jarraipena egitea eta neurtzea

---

<sup>1</sup> Enpresaren araua.

<sup>2</sup> Horren adibide dira, besteak beste, Europako Acorn eta Ökoprofit esperientziak eta estatu espainiarreko e+5, DAOM eta Ekoscan. Estatuko enpresa eta erakunde gehienak Ekoscan Zerbitzuak batzen ditu (550 erakundek parte hartzen dute).

### 3. Helburua eta irismena

Arau honek ezartzen ditu Ingurumena Hobetzeko Kudeaketa egin nahi duen enpresak bete beharreko baldintzak. Enpresaren ingurumen-alderdiak hobetzea du helburu, Ekoscan Araua oinarri dela betiere.

Arau honetako baldintzak aplikagarriak dira erakunde/enpresa batean Ingurumena Hobetzeko Kudeaketaren metodoa ezartzeko, baita baldintza horiek betetzen diren ikuskatzeko ere.

### 4. Erreferentzia-arauak

Orain arte ez zegoen inongo erreferentzia-araurik.

### 5. Definizioak

Ekoscan Arauaren helburuetarako, definizio hauek aplikatzen dira<sup>3</sup>:

**Etengabeko Hobekuntza:** Ingurumena Kudeatzeko sistema areagotzeko prozesua da, ingurumenarekiko jokaera orokorra hobetzeko, enpresaren ingurumenarekiko konpromisoarekin bat eginik.

OHARRA: Ez dago jarduera-eremu guztietan batera gauzatu beharrik prozesua.

**Ingurumena:** Erakunde (enpresa) batek lan egiten duen ingurunea. Hor sartzen dira airea, ura, lurzorua, baliabide naturalak, flora, fauna, gizakiak eta haien arteko harremanak.

**Ingurumen-alderdia:** Erakunde batean ingurumenarekin lotura duten jarduerak, produktuak edo zerbitzuak.

**Zuzeneko ingurumen-alderdiak:** Erakundeak erabat kudeatzen eta kontrolatzen dituen alderdiak.

**Zeharkako ingurumen-alderdiak:** Erakundeak erabat kontrolatzen eta kudeatzen ez dituen ingurumen-inpaktuak, erakundearen jarduerak, produktuek edo zerbitzuek sortuak.

**Ingurumen-inpaktua:** Erakundearen jarduerak edo zerbitzuek ingurumenean (partzialki edo osorik) eragiten duen edonolako aldaketa, onuragarria nahiz kaltegarria.

**Ingurumen-helburua:** Ingurumen-xede orokorra, erakunde (enpresa) batek bere buruari jarritako ingurumen-konpromisotik datorrena. Ahal dela, kuantifikatu egin behar da helburu hori.

**Ingurumenarekiko portaera:** Ingurumena Hobetzeko Kudeaketako emaitza neurgarriak, erakundearen ingurumen-alderdiei dagozkienak, haren Ingurumen Konpromisoa eta helburuak oinarri harturik.

**Ingurumenarekiko konpromisoa:** Erakundearen asmo- eta printzipio-adierazpena, Ingurumena Hobetzeko Kudeaketari dagozkiona, hari jarduteko eta ingurumen-helburuak finkatzeko esparrua ematen diona.

**Erakundea:** Konpainia, korporazio, firma, agintaritza edo instituzioa (edo haien zati nahiz konbinazioa), sozietate-erakoa izan edo ez, publikoa nahiz pribatua, bere eginkizun eta administrazio propioak dituen.

OHARRA: Erakundeak jarduera-unitate bat baino gehiago badu, erakundetzat definitzen da jarduera-unitate bakoitza.

**Hobetze-emaitzak:** erakundearen ingurumen-alderdietan izandako bilakaera positiboa, Ingurumena Hobetzeko Kudeaketaren ondorioz gauzatua, indarrean dagoen ingurumen-legedia betetze hutsetik harantzago jotzen duena.

---

<sup>3</sup> Erabilitako definizioak funtsean ISO14001:1996 Nazioarteko Arauak jasotzen dituenak dira, **letra lodiz** daudenak izan ezik; horiek Ekoscan Araukoak dira.

Alderdi interesdunak: Erakundearen (enpresaren) ingurumen-jarduerek eragiten dioten gizabanakoa edo taldea, edo jarduera haiekin lotura duena.

Ohiz kanpoko egoerak: produkzioari edo zerbitzu-emateari berez ez dagozkion egoera planifikatuak; adibidez, produkzioa abiaraztea edo gelditzea, urteroko mantentze-lanak...

## 6. Baldintzak

### 6.1. Zuzendaritzaren Konpromisoa (Ingurumenarekiko Konpromisoa, Ekoscan Kudeatzailea eta Ingurumena Hobetzeko Taldea)

Erakunde zuzendari nagusiak edo exekutibo gorenak (aurrerantzean, goi-zuzendaritza) honakoa egin behar du:

Ingurumenarekiko Konpromisoa finkatu eta horri eutsi, erakundeak (enpresak) ingurumenarekiko duen jokabidea hobetzeko esparrua ezartzeko.

Ingurumenarekiko Konpromisoak bat etorri behar du Ingurumena Hobetzeko Kudeaketaren irismenarekin, Ekoscan Arauaren arabera betiere. Hona hemen Konpromisoaren gutxieneko betekizunak:

- Erakunde (enpresako) ingurumen-alderdiak etengabe hobetzeko konpromisoa, baita poluzioaren prebentziorako neurriak hartzekoa ere.
- Aplikagarri den ingurumen-legediari egokitzeko konpromisoa<sup>4</sup>, eta horretarako egokitze-plan bat finkatzea.

Ingurumenarekiko Konpromisoa:

- erakunde (enpresako) langile guztiei helarazi behar zaie.
- Interesdun alderdiek eskura eduki behar dute (aldez aurretik eskatuta, betiere).

Ekoscan Kudeatzaile bat izendatu. Besteak beste, honako eginkizun hauek izango ditu:

- Arau honek agintzen duena betearaztea, eta ziurtatzea etengabe hobetzen direla erakundearen ingurumen-alderdiak.
- Sistemaren funtzionamenduaren berri ematea goi-zuzendaritzari, hura ikuskatzeko eta etengabeko hobekuntza-prozesurako oinarri gisara.
- Hautatutako soluzioen bideragarritasunaren (teknikoa, ekonomikoa eta ingurumenekoa) azterketa kudeatzea.
- Ingurumena Hobetzeko Taldeak sustatzea.
- Erakundearen ingurumen-egoerari buruzko ondorioak ateratzeko informazioa prestatzea, eta goi-zuzendaritza proposatzea hobetu beharreko alderdien zerrenda, Ingurumena Hobetzeko hurrengo Planean garatzeko, hala balegokie.
- Lege-betekizunak zenbateraino betetzen diren aztertzea eta, hala badagokio, legedira egokitzeko planaren segimendua egitea.

Ingurumena Hobetzeko Talde bat (edo gehiago) izendatzea. Hona hemen talde horien eginkizunak, goi-zuzendaritzak hobekuntza-xedetzat hautatutako alderdi bakoitzeko:

---

<sup>4</sup> Pertsona fisiko eta juridiko orok dauka bete beharra indarrean dagoen ingurumen-legedia. Erakundearen Ingurumen Konpromisoak honakoa izan behar du helburu: ziurtatzea ezagutzen direla aplikatu beharreko lege-betekizun guztiak, eta bakarren bat betetzen ez dela antzemanaz gero, hori konpontzeko neurriak hartzea.

- Alderdia eragiten duten zergatiak identifikatzea, eta Ingurumena Hobetzeko Plana zehazteko aurretik aztertu behar diren neurriak proposatzea.
- Hautatutako soluzioen bideragarritasunaren (teknikoa, ekonomikoa eta ingurumenekoa) azterketan parte hartzea.
- Ingurumena Hobetzeko Planeko neurriak ezartzen laguntzea.
- Ingurumena Hobetzeko Planeko neurrien aplikazioaren segimendua egitea.
- Plan horren emaitzak erakundeko gainerako langileei jakinarazteko plana eratzea eta hori zabaltzen laguntzea.

Ingurumena Hobetzeko Taldeetan parte hartu behar dute Ekoscan Kudeatzaileak, dagokion eremu, alor edo saileko ordezkarri batek (erabakitzeko ahalmenarekin) eta dagozkion langileek.

Ingurumena Hobetzeko Plana onartzea, eta, behar izanez gero, baita Legedira Egokitzeko Plana ere, eta Plana(k) aplikatzeko baliabideak jartzea (giza baliabideak, ekonomikoak, materialak edo bestelakoak).

Ingurumenari buruzko komunikazio-sistemak ezartzea erakundearen barruan. Sistema horiek langileen parte-hartzea sustatu behar dute, bai ingurumena hobetzeko aukerak bilatzen bai neurriak aplikatzen.

Emaitzak ikuskatzea (urtean behin, gutxienik):

- Ingurumena Hobetzeko Planarenak.
- Ingurumena Hobetzeko Kudeaketaren funtzionamenduarenak.

## 6.2. Erakundeko ingurumen-egoeraren azterketa

### 6.2.1. Irismenaren definizioa Jardueren eta/edo produktuen eta zerbitzuen identifikazioa

Goi-zuzendaritzak identifikatu egin beharko du Ingurumena Hobetzeko Kudeaketaren aplikazio-irismena, Ekoscan Arauaren arabera, eta zehaztu zer jotzen den erakundetzat (ziurtagiriei dagokienez)<sup>5</sup>.

Erabakitzen bada Arau honen arabera Ingurumena Hobetzeko Kudeaketa leku jakin bateko <sup>fn</sup> jardueren zati bati bakarrik aplikatzea, nahitaez hartu behar dira kontuan prozesu horri dagozkion ingurumen-alderdi guztiak. Hau da, produktu edo zerbitzu espezifikoak eskuratzeko behar diren etapa guztiak jarri behar dira.

### 6.2.2. Ingurumen Alderdien, Legezko Betekizunen eta Ingurumenarekiko Jokaeraren Adierazleak identifikatzea

Ingurumen Alderdiak

Irismenaren barruan sartzen diren jardueri, produktuei edo zerbitzuei dagozkien zuzeneko ingurumen-alderdiak –gutxienik– identifikatu behar dira.

Finkatutako irismenari dagozkion ingurumen-alderdiak zehazteko, ohiko egoeretan eta ohiz kanpokoetan sortzen diren ingurumen-alderdiak hartu behar dira kontuan.

Dokumentatu egin behar da ingurumen-alderdien identifikazioa<sup>6</sup> eta urtean behin –gutxienez– ikuskatu.

Alderdiei dagozkien lege-betekizunak.

---

<sup>5</sup> Enpresak erabaki behar du zer irismen izango duen planak. Hainbat faktore izan behar ditu kontuan horretarako: hasierako egoera, ingurumen-inpaktua, barne politika...

<sup>6</sup> Fluxu-diagrama tankerako eskemak erabil daitezke, edo oinplanoaren planoko prozesu-mapak...

Erakundeak identifikatu begin behar ditu erakundeko ingurumen-alderdiei aplikatu beharreko lege-betekizunak, baita haien betetze-maila aztertu ere.

Legediaren betetze-maila urtero –gutxienez– identifikatu eta ebaluatu behar da, eta dokumentatu egin behar da.

Legediak finkatzen du zer betekizun (nahitaez bete beharrekoak) aplikatu behar zaizkion erakunde bakoitzari. Lege-betekizunen ebaluazioan desbideraketarik antzemanaz gero indarrean dagoen ingurumen-legedia betetzeari dagokionez, desbideraketak zuzentzeko egokitze-plana zehaztu behar du erakundeak<sup>7</sup>.

Ingurumenarekiko Jokaeraren adierazleak

Erakundearen ingurumen-egoera orokorra deskribatzen duten Ingurumenarekiko Jokaeraren hiru Adierazle –gutxienik– zehaztu behar ditu goi-zuzendaritzak, ingurumen-alderdien identifikazioa eta aplikatu beharreko lege-betekizunak oinarri harturik.

Dokumentatuta egon behar dute Ingurumenarekiko Jokaeraren Adierazleek, eta urtean behin (gutxienik) ikuskatu behar dira.

### Ingurumen-alderdien kuantifikazioa

Identifikatutako alderdiei buruzko informazioa jaso behar du erakundeak.

Erakundeak kuantifikatu beharreko alderdietan sartu behar dira arriskugarritasunagatik edo kantitateagatik nabarmentzen diren guztiak, gutxienik. Zehazki, honako alderdi hauek kuantifikatzeko informazioa jaso behar du erakundeak:

Sarrerak:

- lehengai nagusiak<sup>8</sup>, bereziki hondakin arriskutsuak sortzen dituztenak eta substantzia edo prestakin arriskutsuak.  
OHARRA : Adibidez, kontsumitutako lehengai guztien % 90etik gora diren lehengaiak edo baliabideak.
- gai osagarri nagusiak,<sup>9</sup> bereziki hondakin arriskutsuak sortzen dituztenak eta substantzia edo prestakin arriskutsuak.  
OHARRA: Adibidez, erakundeko jarduera nagusiko prozesuan/zerbitzuan erabiltzen diren gai osagarri guztien kantitatearen % 90etik gora diren gai osagarriak.
- Ontziratze-material nagusiak.  
OHARRA: Adibidez, guztira ontzi-kantitate guztizkoaren % 90etik gora direnak.
- Energia-kontsumoen guztizkoa, bai energia elektrikoena bai erregaiena.
- Guztizko ur-kontsumoa

Irteerak:

- Hondakin arriskutsu nagusiak.  
OHARRA: Adibidez, guztira hondakin arriskutsuen guztizkoaren % 90etik gora direnak.
- Hondakin ez-arriskutsu nagusiak.  
OHARRA: Adibidez, guztira hondakin ez-arriskutsuen guztizkoaren % 90etik gora direnak.
- Isurpen nagusiak.

---

<sup>7</sup> Ikus C Gehigarria (Gomendioak)

<sup>8</sup> Lehengaitzat jotzen dira azken produktuaren osagai direnak, edo eskaintzen den zerbitzuaren zati garrantzitsu direnak.

<sup>9</sup> Gai osagarritzat jotzen dira azken produktuko osagai ez izan arren produkzio-prozesuan edo zerbitzua emateko faseetan erabiltzen direnak.

- OHARRA: Adibidez, gutzira isurpenen gutzizkoaren % 90etik gora direnak, bereziki arriskutsuenak.
- Airera egiten diren isurpen nagusiak.  
OHARRA: Adibidez, gutzira airera egiten diren isurpenen gutzizkoaren % 90etik gora direnak, bereziki arriskutsuenak.
  - Ahal dela, zaratak, usain txarrak eta poluituta egon daitezkeen lekuak.

Kuantifikazioa egiteko informazioak datu hauek –gutxienez– izan behar ditu:

- Prozesurako sarrera-datuak:
  - Saillapen honetakoak dira honako hauek, gutxienez: lehengaiak, gai osagarriak, ura, energia, ontziak eta bilgarriak.
  - Alderdiei buruzko informazio kuantitatiboa (adibidez, magnitude absolutuak).
  - Erosteak edo erabiltzeak dakartzan kostuak.
  - Erabiltzen diren materialen eta baliabideen arriskugarritasuna adieraztea.
  - Datuaren iturria eta/edo kalkulatzeko sistema, haiek erreproduzitu eta aldian behin konparatu ahal daitezen hobekuntzaren emaitzak neurtzeko.
- Prozesurako irteera-datuak:
  - Saillapen honetakoak dira honako hauek, gutxienez: hondakin arriskutsuak, hondakin ez-arriskutsuak, airera egiten diren isurketak, isurketa likidoak eta, ahal dela, zarata.
  - Alderdiei buruzko informazio kuantitatiboa (adibidez, magnitude absolutuak),
  - Kostuei buruzko informazioa, barne direla kanpo-kostuak eta barne-kostuak (hondakinei, isurketa likidoei eta, ahal dela, emisioei dagozkienak).
  - Hondakinei dagokienez, haien lege-ezaugarriak jarri behar dira (hondakin arriskutsuak edo ez-arriskutsuak diren, sanitarioak...).
  - Isurpen likidoei eta airera egindako isurpenei dagokienez, haien ezaugarri nagusiak aipatu behar dira.
  - Datuaren iturria eta/edo kalkulatzeko sistema, haiek erreproduzitu eta aldian behin konparatu ahal daitezen hobekuntzaren emaitzak neurtzeko.

### 6.3. Ingurumen-alderdien lehenespena eta hobetu beharreko helburuen hautaketa

Erakundeak lehenetsi egin behar ditu identifikatutako alderdiak. Lehenespenak egiteko, honako irizpide hauek –gutxienik– izan behar ditu kontuan erakundeak:

- Kantitatea: datu kuantitatiboak (adibidez, magnitude absolutuak).
- Arriskugarritasuna, hauen bidez zeharka identifikatua:
  - aplikatu beharreko lege-betekizunak egotea.
  - Laneko Osasunerako arriskuak (balego), ingurumen-alderdiari lotuta identifikatu direnak.
- Ingurumen-kuantifikazioan identifikatutako kostu ekonomikoak.
- Minimizazio-potentziala, baita ingurumenarekiko jokaeratik hobetze-emaitzak lortzekoa ere.

Alderdien lehenespenak dokumentatuta egon behar du, eta:

- alderdiak ebaluatzeko prozedura dokumentatu baten baitakoa izan behar du,
- edo, bestela, erakunde bi lagunek (gutxienez) egin behar dute (horietako bat, Ekoscan Kudeatzailea) edo (hobe) Hobekuntza Taldeak.

Lehenespenak ekarritako emaitzak ikusirik, hobetzeko bi alderdi (gutxienik) hautatu behar dira.

Goi-zuzendaritzak onetsi behar du hobetze-helburuak behar dituzten alderdien azken hautaketa.



## 6.4. Ingurumena Hobetzeko Planaren definizioa

Ingurumena Hobetzeko Plana definitzeko prozesuak honako urrats hauek –gutxienik– egin behar ditu:

- Hobekuntza Taldeak identifikatu egin behar ditu hautatutako alderdi bakoitzerako leudekeen soluziobideak.<sup>10</sup>
- Aztertu beharreko neurriak hautatu behar dira. Goi-zuzendaritzak (edo horrek izendatzen duenak) zehaztu behar ditu aztertu beharreko neurriak, Hobekuntza Taldeak eginiko proposamena oinarri hartuta. Hartutako neurriak bat ez badatoz Hobekuntza Taldeak gomendatutakoekin, zuzendaritzak justifikatu egin behar du erabakia eta Hobekuntza Taldeari azaldu aldaketaren arrazoiak.
- Hartutako neurrien bideragarritasunari (teknikoa, ekonomikoa eta ingurumenekoa) buruzko azterketa dokumentatua, barne direla alderdiek izan ditzaketen hobetze-erabakia.
- Ingurumena Hobetzeko Planaren definizioa.

Ingurumena Hobetzeko Planak:

- honetarako ekimenak, arduradunak eta epeak jarri behar ditu:
    - epe jakin batean ingurumenarekiko jokaera hobetzeko, hobetu beharreko zatitako hautatutako alderdi batean behintzat.
    - lehenetsitako alderdi guztien kontrol egokia definitzeko (hobekuntza-erabakia eduki nahiz ez eduki), haien jokaera denboran zehar egonkorra izango dela (gutxienik) ziurtatzeko.
    - ingurumen-alderdiak lortu behar dituzten langileak sentibilizatzeko ekimenak bultzatzeko (adibidez, enpresa barruko trebakuntza- eta komunikazio-planak).
  - erakundeko gainerako ataletara zabaltzeko, Ingurumena Hobetzeko Taldeetara bereziki.
  - urtean behin (gutxienik) eguneratzeko.
- Goi-zuzendaritzak Ingurumena Hobetzeko Plana onetsi behar du, eta hura ondo aplikatzeko arduradunak, epeak, segimendu-adierazleak eta baliabideak esleitu behar ditu.

Koherenteak eta erakundeari egokituak izan behar dute hobekuntza-helburuek, baita egin beharreko ekimenek eta Planean aurreikusitako erabakiek ere.

Lege-betekizunen urteroko ebaluazioan desbideraketarik antzemanaz gero indarrean dagoen ingurumen-legedia betetzeari dagokionez, Legedira Egokitzeko Plana prestatu behar du erakundeak haiek zuzentzeko. Goi-zuzendaritzak onetsi behar du aipatu Plana, baita lanak, arduradunak eta baliabideak esleitu ere zuzendaritzaren konpromisoa betetzeko, indarrean dagoen legediari egokitzeko alegia.

## 6.5. Ingurumena Hobetzeko Planaren segimendua eta erabakia jakinaraztea

### Ingurumena Hobetzeko Planaren segimendua

Ekoscan Kudeatzaileak egin behar du Ingurumena Hobetzeko Planeko ekimenen segimendu orokorra, finkatutako helburuetan hobekuntzak lortzeko helburuz.

Planaren aplikazio-epean jasotako informazio eta dokumentazio guztia bildu behar du segimenduarik.

Horrez gain, urtean behin (gutxienik) egin behar da beste segimendu bat, Ingurumena Hobetzeko Taldeen partaidetzarekin.

Urteroko segimenduaren helburua da egiaztatzea zenbateraino betetzen diren aurreikusitako helburuak. Alderdien hobekuntza-erabakia ebaluatu behar ditu segimendu-planak, kontuan harturik zein zen hasierako egoera eta zein Ingurumena Hobetzeko Plana ezarri ondorengoa.

<sup>10</sup> Horretarako, 'ideia-jasa' deritzon sistema erabiltzea gomendatzen da. Beste edozein talde-dinamikako teknikak ere balio du.

Urteroko segimenduaren ondoren, txosten bat egin behar da hobekuntza-helburutzat hautatutako alderdi bakoitzeko:

- lortutako murrizte-emaizta kuantifikatuak (adierazlearen balioa hasierako eta amaierako egoeran, eta murrizketa absolutua);
- ahal dela, neurria ezartzeak eragindako inbertsio eta gastuen kuantifikazioa, baita hari esker aurreztutako diruarena ere;
- hobekuntzarik lortu ez bada hobetze-helbururen batean, zer dela eta ez den lortu aipatu hobekuntza;
- Ingurumena Hobetzeko Planen dagozkien alderdiak kontrolatzeko eta horiei adierazleak ezartzeko erabili behar den sistemaren deskribapena, haien jokaera denboran zehar egonkorra izango dela (gutxienik) ziurtatzeko.

### Ingurumena Hobetzeko Emaizten jakinarazpena

Ingurumena Hobetzeko emaitzak:

- erakundeko gainerakoei jakinarazi behar zaizkie, Ingurumena Hobetzeko Planak ekarritako emaitzei dagozkienak bederen;
- interesdun alderdien eskura ipini behar dira (aldez aurretik eskatuta betiere), ingurumen-alderdien murrizketan lortutako emaitzei dagozkienak behintzat.

### 6.6. Ingurumena Hobetzeko Kudeaketa zuzendaritzak ikuskatzea

Ingurumena Hobetzeko Kudeaketaren ikuskaritza:

- goi-zuzendaritzak egin behar du, urtean behin gutxienez,
- honako hauek (gutxienez) oinarri dituela:
  - ingurumen-alderdien kuantifikazioetako datu eguneratuak,
  - erakundeari aplikatu behar zaizkion ingurumen-betekizun legalen betetze-mailari buruzko identifikazioaren eta ebaluazioaren informazio eguneratua,
  - Ingurumenarekiko Jokaerarekiko Adierazleen balio eguneratuak, baita aurreko urteetan hobetze-helburutzat jo izan diren alderdien segimendurako zehaztutako adierazleak ere,
  - ingurumen-alderdien lehenespenaren emaitza,
  - Ingurumena Hobetzeko Planaren urteroko segimenduaren emaitzak jasotzen dituen txostenaren ondorioak.
- Ikuskaritzaren emaitza gisara, goi-zuzendaritzak txosten bat datatu eta sinatu behar du. Txosten horrek:
  - murrizketa-emaizta kuantifikatuak jasotzen dituen txostena onartu behar du,
  - hurrengo ekitaldirako hobetze-helburuak finkatzeko ingurumen-alderdi berriak finkatu behar ditu,
  - Ingurumena Hobetzeko Taldeak izendatu behar ditu, edo horretarako onespina eman,
  - legedia egokitzeko eta eguneratzeko Planaren aurrerapenak jaso behar ditu, baita horiei dagozkien ekimenen aldirako ikuskapena ere,
  - beste balioztapen orokor batzuk ere jaso behar ditu; besteak beste, Zuzendaritzaren Konpromisoaren egokitasuna, erakundearen hobekuntzan egindako aurrerapenak eta zuzendaritzak egoki deritzon beste zeinahi.

## A GEHIGARRIA<sup>11</sup> EKOSCAN ARAUEN, ISO 14001:1996-AREN ETA 761/01 EMAS ARAUDIAREN ARTEKO ELKARREKIKOTASUNA

EKOSCAN ARAUA 2004	ISO14001:1996	761/01 EMAS ARAUDIA <sup>12</sup>
6.1 Zuzendaritzaren Konpromisoa (Ingurumenarekiko Konpromisoa, Ekoscan Kudeatzailea eta Ingurumena Hobetzeko Taldea)  <i>(Langileen partaidetza, horretarako Hobekuntza Talde bat izendatuz)</i>	Ingurumen-politika 4.4.1 Egitura eta erantzukizunak 4.4.3 Komunikazioa.	I/B gehigarria, 4. atala
6.2 Erakundeko ingurumen-egoeraren ebaluazioa 6.2.1 Irismenaren definizioa Jardueren eta/edo produktuen eta zerbitzuen identifikazioa 6.2.2 Ingurumen Alderdien eta Lege Betekizunen identifikazioa 6.2.3 Ingurumen-alderdien kuantifikazioa: <i>(Barne- eta kanpo-kostuei dagozkien datuak)</i>	4.3.1 ingurumen-alderdiak 4.3.2 Lege-betekizunak eta bestelako betekizun batzuk 4.3.1 ingurumen-alderdiak	3.2 a) artikulua. Ingurumen-azterketa III. gehigarria; 3.2.e) puntua EMAS II I/B gehigarria 2. atala I/B gehigarria, 1. atala
6.3 Ingurumen-alderdien lehenespena eta hobetu beharreko helburuen hautaketa <i>(Kostuak lehenespen-irizpide gisara)</i>	4.3.1 ingurumen-alderdiak 4.3.3 Helburuak eta xedeak	I/B gehigarria, 4. atala
6.4 Ingurumena Hobetzeko Planaren definizioa  <i>(Hobekuntza Taldearen partaidetza Hobekuntza Planean. Bideragarritasun ekonomiko, tekniko eta ingurumenekoaren azterketa egitetik eratorritako plana                      • Legeak egokitzeko plana).</i>	4.3.4 Ingurumena kudeatzeko programa 4.4.3 Komunikazioa. 4.5.1 Segimendua eta neurtzea	
6.5 Ingurumena Hobetzeko Planaren segimendua eta emaitzak jakinaraztea <i>(Lehenetsitako alderdiei dagozkien hobekuntza-emaitza kuantifikatuak bermatzeko premia, eta interesdun alderdien eskura jartzea ingurumen-emaitzak. - kanpo-komunikazioa)</i>	4.5.1 Segimendua eta neurtzea	3.2.c) artikulua. Ingurumen-adierazpena; III. gehigarria I/B gehigarria, 3. atala

<sup>11</sup> Gehigarri guztiek informazioa soilik daukate.

<sup>12</sup> Ez dira sartzen I. Gehigarriari ("Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren betekizunak") dagozkion betekizunak, ISO 14001:1996 ARAUAN sartuta daudela jotzen baita, eta, beraz, zutabe horretan ageri direla.


EKOSCAN ARAUA 2004	ISO14001:1996	761/01 EMAS ARAUDIA <sup>12</sup>
6.6 Ingurumena Hobetzeko Kudeaketa zuzendaritzak ikuskatzea	4.6 Zuzendaritzaren ikuskapena	

Kolore urdinez, Ekoscan Arauari dagozkion betekizunak

Berdez, Ekoscan Arauaren betekizun espezifikoak

**Oharra:** Kontuan izan Ekoscan Arauak –ISO 14001-ek eta EMASEk ez bezala– ez duela behar betekizunei buruzko prozedura dokumentaturik.

## B GEHIGARRIA. EKOSCAN Arauaren betekizunak. PDCA eskema



## C. GEHIGARRIA. GOMENDIOAK

**Ekoscan kudeatzailea:** Arauan ageri diren eginkizunak garatzeko behar hainbateko ezaupideak eta erantzukizuna behar ditu Ekoscan Kudeatzaileak. Goi-zuzendaritzak berak har dezake bere esku, zuzenean, egiteko hori. Ez dago horretaz inongo mugarik.

**Hobekuntza Taldea:** Ekoscan Kudeatzailea zuzendaritza-taldeko kidea ez bada, gomendatzen da erakundeko zuzendaritzako ordezkariaren batek parte hartzea Lan Taldeetan.

Gomendatzen da, halaber, langileen legezko ordezkariari jakinaraztea Lan Taldeen helburuen, funtzionamendu-eraren eta emaitzen berri.

Hobekuntza-tresnak eta teknikak behar ditu hartu euskarriztat Lan Taldeek proposatzen dituzten soluziobideen identifikazioak eta hautaketak.

### Irismenaren identifikazioa

Erabakitzen bada Arau honen arabera Ingurumena Hobetzeko Kudeaketa leku jakin bateko <sup>13</sup> jardueren zati bati bakarrik aplikatzea, nahitaez hartu behar dira kontuan prozesu horri dagozkion ingurumen-alderdi guztiak. Hau da, produktu edo zerbitzu espezifiko eskuratzeko behar diren etapa guztiak jarri behar dira.

**Ingurumen-alderdiak identifikatzea.** Arauan ageri direnez gain, honako hauek gomendatzen dira:

- gerta litezkeen larrialdi-egoerek sor litzaketen ingurumen-alderdiak,
- zeharka sor daitezkeen beste ingurumen-alderdi batzuk.

**Lege-betekizunak:** Desbideraketaren bat antzemanaz gero indarrean dagoen ingurumen-legediaren betetze-mailari buruzko urteroko azterketan, legera egokitzeko Plan bat prestatu behar du erakundeak. Gehienez ere hiru urteren buruan lege-betekizun guztiak betetzeko eman beharreko pauso guztiak zehaztu behar ditu aipatu Planak.<sup>14</sup> Legedira Egokitzeko Plana garatzeko, kontuan izan behar da:

- legedia ez betetzeak dakartzan ingurumen-inpaktuak. Hortaz, lehentasuna eman behar zaio hondakinak isurtzeko, aireratzeko edo egoki kudeatzeko legezko mugak betetzen ez diren egoerak konpontzeari.
- Legedia ez betetzeak dakartzan ariskuak (biltegiak...).
- Gizartearen eta administrazioaren presioak (auzotarren kexuak, administrazioaren isunak...).

**Ingurumen-alderdiak lehenestea:** Ingurumen-alderdiak lehenesteko, kontuan izan behar dira enpresak minimizazio-neurriak hartzeko izan litzakeen beste arrazoi batzuk ere, adibidez, enpresak eremu edo sailen batean inbertsioak egitea aurreikusia izatea. Beraz, komeni da prozesua aztertzea ingurumen-alderdiak sartu ahal izateko edo, adibidez, IPPC Arteztaraura egokitzeko.

**Ingurumenarekiko Jokaeraren Hobekuntzaren segimendua:** Hobekuntza suspertze aldera, gomendatzen zaie erakundeei trukatzera bere ingurumenarekiko jokaeraren datuak antzeko beste erakunde batzuenekin, sektoreko ingurumen-jardunbide egokienak identifikatzen laguntzeko (ingurumen-benchmarking-a).

## D GEHIGARRIA. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

ISO 14000/1996 seriea. ISO-14000 seriearen arauak

BS8555

761/2001 EMAS Araudia (EE)

Ekoscan® Metodologia Transferitzeko Gida Praktikoa (IHOBE, S.A.)

DAOM (CEMA)

Ökoprofit® (STENUM)

Ecomapping® (Heinz Werner Engel)

Enpresa eraginkorra (UNEP)

ISO9000/2000 seriea

<sup>13</sup> Kasu horri dagokionez, badira baldintza murriztaileak Ekoscan® Marka Erabiltzeko Arauetan

<sup>14</sup> Legediak zehazten du zein betekizun aplikatu behar zaion erakunde bakoitzari; beraz, zein diren nahitaez bete beharrekoak. Ekoscan®. Ziurtagiriari eusteko legedia aplikagarriaren % 100 bete behar da laugarren ikuskapenean (3. urtea). Hortik dator aipatu epea, hiru urtekoa. (Ziurtagiria Erabiltzeko Baldintzak)